

## **Udalak sostengu handiagoa emango die bertako artistei 2016ko Proiektu Artistikoen programarako deialdi berrian**

**Orotara 3 proiektu aukeratuko dira, eta horiei laguntza ekonomikoa eta teknikoa emateaz gain erakusteko eta zabaltzeko epea luzatuko da**

Kultura, Hezkuntza eta Kirol Sailak otsailean egingo du 2016ko Proiektu Artistikoen programarako deialdia, zenbait berrikuntzarekin.

Programaren helburu nagusia bertako artistek –profesionalak zein profesionalizazio bidean izan– dituzten beharrei erantzutea da, haien lanei sostengu eta aitorpen handiagoa emanez. Gehienez hiru proiektu aukeratzea aurreikusi da, eta horietako bakoitzak bermatuta izango du gutxienez 4.000 euroko laguntza ekonomikoa; 6.000 euroraino ere irits liteke laguntza.

Gainera, aurkezten diren artistek ordainsarien kontzeptua ere sartu ahalko dute, haien lana zuzenean aitortzen delarik profesionalizatzen laguntzeko eskaerari erantzuteko.

Bestetik, erakusketak bi hilabete iraungo du, lanaren ikusgarritasuna eta sozializazioa handitzearren; Montehermoso kulturuneko programazioa lau hilean behin iragarriko da.

Artista bakoitzarekin gutxienez bi bisita gidatu eta lantegi bat hitzartuko dira, Montehermoso kulturuneko publikoarekin harreman zuzena izan dezaten; hartara, Gertutasunaren Kultura landuko da, hots, artea herritarrei hurbiltzeko ahalegina egingo da.

Muntatze eta desmuntatze lanetan, berriz, Montehermoso kulturuneko teknikarien laguntza izango dute artistek.

“Deialdi honekin bigarren helburu bat ere lortu nahi dugu: Montehermoso kulturunean bertako artisten erakusketa programa egonkorra sortzea. Hartara, urte osoan banatuko ditugu erakusketak, era orekatuan eta bikoizketarik gabe, lehengo lauhilekoan zentroa ia hutsik eta azkenean gainezka egon ez dadin”, azaldu du Kultura, Hezkuntza eta Kirol zinegotzi Iñaki Prusillak batzordean. Hautatutako proiektuetako bi 2016an erakutsiko dira, eta hirugarrena, 2017ko lehen hiruhilekoan. 2016ko otsailaren 28ra arte aurkeztu ahalko dira proiektuak.

## **El Ayuntamiento refuerza el apoyo a artistas locales en la nueva convocatoria del programa Proyectos Artísticos 2016**

**Se elegirán 3 proyectos, con apoyo económico y técnico y ampliación del plazo de exposición y difusión**

El Departamento de Cultura, Educación y Deporte activará el próximo mes de febrero la convocatoria para seleccionar las iniciativas que formarán parte del programa Proyectos Artísticos 2016 y que contiene algunas novedades.

El primer objetivo de este programa es atender las demandas de las y los artistas locales dando un mayor apoyo y reconocimiento a sus trabajos, sean profesionales o en vías de profesionalización. Para ello, está previsto seleccionar un máximo de tres proyectos, que tienen asegurado un apoyo económico mínimo de 4.000 € por proyecto hasta un máximo de 6.000 €.

Otra de las novedades es que las y los artistas que se presenten pueden incluir el concepto de honorarios, respondiendo a una larga demanda de apoyo a profesionalización, reconociendo directamente su trabajo.

Además, se amplía el plazo de duración de la exposición a dos meses, lo que mejora la visibilidad y la socialización de su trabajo, completando con anuncios cuatrimestrales de la programación del Centro Cultural Montehermoso.

Con cada artista se acordará un mínimo de dos visitas guiadas y un taller a través de los cuales se establecerá un contacto directo con los públicos del Centro Cultural Montehermoso acercando, aún más, el arte a la ciudadanía a través de lo que denominamos Cultura de Cercanía.

Además las y los artistas contarán con el apoyo y dirección técnica para las labores montaje y desmontaje, con las dotaciones técnicas del Centro Cultural Montehermoso.

“Con esta convocatoria alcanzamos un segundo objetivo que no es otro que generar un programa estable de exposiciones con artistas locales en el Centro Cultural Montehermoso. Ello nos va a permitir su distribución, de manera equilibrada y sin solapamientos, a lo largo del año, evitando que el primer cuatrimestre apenas tenga programación y el último esté saturado”, ha explicado el concejal de Cultura, Educación y Deporte, Iñaki Prusilla, en la comisión. Dos de los proyectos seleccionados se expondrán en 2016 y el tercero en el primer trimestre de 2017. El plazo de presentación de proyectos será hasta el día 28 de febrero de 2016.